

BALOREZKO PROPOSAMENA:

- **Km0 elikagaien aldeko apustua egiten dugu.** Baserritarrei beraien produktuak herriko biztanleei helarazten lagunduko diegu: beraien produktuak herrira iritsarazten eta saltzeko erraztasuna ematen. Horren bidez ere, guk komisioak kobratuko ditugu herritarrei produktuak eramateagatik.



- **Bezeroarekiko tratu hurbila eta kalitatezkoa, salmenta egin aurretik eta ondoren.** Herritarrei produktuak eraman aurretik beraienganako interesa piztuko dugu app-aren eta webgunearen bidez. Salmenta aurrera eramateko eta produktuak haiei iritsarazi ondoren, kalitatezko tratu bat emango diegu bezeroei eta horrek, gure banaketa-kanaletik erosketak gehiago egitea eragingo duen ustea dugu.



- **Bezero bakoitzarekiko atentzio pertsonalizatua.** Bezero bakoitzarekiko harremanak gertutasunez egingo ditugu. Horrela, erosketak egiterakoan hobeto sentituko dira eta aurrerantzean gure zerbitzua kontutan izango dute. Horren ondorioz, gure salmentak handituko genituzke.



- **Baserrien produktuak biztanleriari helarazi.** Honen bidez, gure inguruko kalitatezko produktuak herrira eramango ditugu, baserrien eta bezeroaren onurarako. Ekoizleei beraien produktuak merkaturatzen lagunduko diegu eta erosleei kalitate oneko produktuak kontsumitzeko aukera izango dute.

